AEK-k aspaldi honetan proposatzen ditu izaera trinkoko Ikastaldiak udako aste batez edo bi astez (astelehenetik ostiralera).

Ikasturteko bekarekin koherentzian egoteko eta bekaren plantatzean finkatu jarraikortasunaren inguruko irizpideei jarraiki, eragile publikoak ekarri laguntzaren partea, ikasturtearena bezalakoa izanen dela erabaki da.

2 - Descriptif du système de bourse pour les stages intensifs ou Ikastaldi

AEK propose depuis de nombreuses années un stage intensif ou Ikastaldi d'une ou deux semaines durant l'été (du lundi au vendredi).

Pour être en adéquation avec la bourse de l'année scolaire et respecter les critères d'assiduité avancés dans la mise en place de la bourse, il a été retenu que le taux de participation de la collectivité serait le même que celui de l'année scolaire.

	Niveau 1. maila		Niveau 2. maila		Niveau 3. maila		Niveau 4. maila		Niveau 5. maila	
nbre semaines	1	2	1	2	1	2	1	2	1	2
tarif cours	110 €	220 €	110 €	220 €	110 €	220 €	110 €	220 €	110 €	220 €
taux bourse	50%		60%		70%		80%		90%	
montant bourse	55 €	110 €	66 €	132 €	77 €	154 €	88 €	176 €	99 €	198 €
part élève	55 €	110 €	44 €	88 €	33 €	66 €	22 €	44 €	11 €	22 €

Beka horiek emanak dira baldin eta ikasleak kurtsoak segitzen baditu %80ko heinean guttienez.

Ces bourses sont accordées à l'apprenant sous réserve d'un taux d'assiduité de 80% tout au long du cursus de formation.

Buxeta :

Hipotesia eginez 100 pertsonek segituko dituztela gaueko kurtsoak eta 11 pertsonek udako ikastaldia eginen dutela, beken kostua elkargoarentzat heldu da 17 808 €ra.

Budget :

Sur une hypothèse de 100 personnes engagées dans les cours du soir et 11 personnes inscrites dans les stages intensifs d'été, le coût des bourses s'élève pour la collectivité à 17 808 €.

Délibération :

Au vu de ces éléments, la Conseil d'Administration décide d'octroyer à la Communauté de Communes Errobi, à titre expérimental, **une aide financière à hauteur de 50%** du montant des bourses attribuées **dans la limite de 8 904 € de subvention**.

Cette subvention ne sera attribuée que si les conditions indiquées (assiduité, progression dans l'apprentissage) sont respectées.

A l'issue de cette année de formation, l'OPLB procédera à l'évaluation de ce dispositif expérimental en partenariat avec la Communauté de Communes Errobi.

Adopté à l'unanimité.

Aho batez onartua.

6.4. B eredura labelizatua den Luma Baiona haurtzaindegiaarentzat hizkuntza formakuntzarako laguntza

Testuingurua :

Luma Baiona haurtzaindegiaik B ereduarentzat labelizatze eskaera bat egin du. Eskaera aztertutik, 2010eko maiatzaren 10eko Labelizatze batzordeak haurtzaindegia den bezala labelizatzea erabaki du, kudeatzaileari seinalatuz, haren langileetariko baten hizkuntza gaitasunen hobetze beharra.

Proiektuaren aurkezpena :

Labelizatze batzordearen oharra aurreikusirik, kudeatzaileak 2010eko urtearentzat hizkuntza formakuntzarako proposamen bat luzatu dio langileari.

Hala, 2010eko urtarrilaren 4a eta ekainaren 25a artean, 161 oreneko hizkuntza ikastaro bat segitu ahal izan du langileak.

Zerbitzuaren funtzionamendu ona segurtatzeko gisan, langilea formakuntzan zen orenetan ordezkari bat hartu behar izan du kudeatzaileak.

Bestalde 2010ean, lehen haurtaroko harrera kolektiboko egiturak hitzarmen kolektibo berri batera pasatu behar izan dira, Habitat Formation hartuz OPCA gisa.

OPCAren aldaketaren ondorioz, Lumak ezin izan du hizkuntza formakuntzaren ordaintzeko gisako krediturik eskuratu 2010 urte honetan. Ondorioz, diru laguntza eskaera bat egin dio EEPri, formakuntza diruz lagundu dezan, honako gastu hauek kontutan harturik :

- 1 780 €ko formakuntza gastuak ;
- 1 700 €ko ordezkatze gastuak.

6.4. Aide à la formation linguistique de l'EAJE Luma Baiona labellisé au modèle B

Contexte :

Suite à une demande de labellisation au modèle B de l'établissement Luma, le Comité des labels du 10 mai 2010, a décidé de labelliser l'établissement en l'état, en signalant néanmoins au gestionnaire le besoin de perfectionnement linguistique de l'un des professionnels.

Présentation du projet :

Anticipant la remarque du Comité des labels, le gestionnaire de l'établissement a proposé une formation linguistique au salarié concerné, pour l'année 2010.

Celui-ci a ainsi suivi un stage de perfectionnement de 161 heures entre le 4 janvier 2010 le 25 juin 2010.

Afin d'assurer la continuité du service, le gestionnaire a dû remplacer le salarié durant les heures de formation.

L'année 2010 a également marqué le passage de l'établissement d'accueil des jeunes enfants à une nouvelle convention, fixant notamment l'obligation pour les Eaje de cotiser auprès de l'OPCA Habitat Formation.

Le changement d'OPCA ne permettant pas à Luma de bénéficier des crédits nécessaires en 2010 pour la formation linguistique, le gestionnaire sollicite l'Office Public de la Langue Basque pour une aide à la formation comprenant :

- les coûts de formation d'une hauteur de 1 780 € ;
- les coûts de remplacement s'élevant à 1 700 €.

Délibération :

Le Conseil d'Administration décide de soutenir Luma Baiona **à hauteur de 50% des coûts dans la limite de 1 740 €.**

Adopté à l'unanimité.

Aho batez onartua.

6.5. Hendaiko hiriak gazteentzat antolatu euskarazko aisialdian lagunza ekartzea

Testuingurua :

EEPren eta Hendaiko hiriaren arteko partaidetza hitzarmenean finkatua den bezala, EEPk lagunten ditu euskararen aldeko ekintzak, lagunza teknikoa eta finantzazkoa ekarri.

Proiektuaren aurkezpena :

Ekintza hau antolatua da *Contrat Education Temps Libre* horren baitan. 2003z geroztik, *Contrat Education Temps Libre* delako bat finkatua izan da CAFarekin, eta *Contrat Educatif Local* delako bat, Departamenduko Kohesio sozialaren zerbitzuarekin.

Hezkuntza helburuak

Euskara sustatu aisaldi aktibitateetan praktikaaraziz, euskara eskolan ikasia delarik. Hiztegia aberastu, hizkuntza baliatua den egoerak anitzuz.

Urte bakoitz proposatuak diren tailerren arabera, beste helburu batzu bete daitezke, hala nola : tradiziozko musika eta kantu ezagutarazi, kirola eta aktibitate artistiko berriak egin...

Haatik, horiek bigarren mailako helburuak dira. Helburu nagusia euskara eskolatik kanpo baliatzea da.

Nori zuzenduak zaizkio aktibitateak

Tailerrak zuzenduak dira Hendaiko lehen mailako eskoletan euskara ikasten duten haurrei, bai eta ere Hendaiatik kanpo eskolatuak diren haurrei.

2009/2010 urtean, 5-11 urteko 95 haurrek euskara praktikatu dute aisialdian, euskaraz egiten diren tailerretan parte hartuz.

2010/2011 urteko programa

2010ko ekainan egin inkestari jarraikiz, eta aitzineko urteko parte hartziale kopurua ikusirik, sei aktibitate desberdin antolatuak izanen dira :

- 4 arte plastiko tailer
- 2 antzerki tailer
- euskal kantu tailer bat
- txalaparta eta pandero tailer bat
- gorputz adierazpen/garaikide dantza tailer bat
- Oposizio joko/karate tailer bat

6.5. Soutien aux activités de loisirs en langue basque à destination des jeunes organisées par la Ville d'Hendaye

Contexte :

Dans le cadre de la convention de partenariat Ville d'Hendaye/OPLB, l'Office s'est engagé à apporter son concours technique et financier pour la mise en œuvre des actions de politique linguistique engagées par la Ville.

Présentation du projet :

Cette action est organisée dans le cadre du *Contrat Education Temps Libre*. Depuis 2003, un *Contrat Temps Libre* est passé avec la Caisse d'Allocation Familiale et un *Contrat Educatif Local*, avec la Direction Départementale de la Cohésion Sociale.

Objectifs éducatifs

Promouvoir la langue basque en la faisant pratiquer dans le cadre des activités de loisirs, lorsqu'elle est apprise à l'école. Enrichir le vocabulaire en diversifiant les situations dans lesquelles la langue est parlée.

Suivant les ateliers proposés chaque année, d'autres objectifs peuvent être atteints : Eveiller à la musique et au chant choral traditionnel, diversifier ses activités physiques et artistiques...

Cependant ce sont des objectifs secondaires, le principal étant de pratiquer de façon vivante la langue basque en dehors de l'école.

Public concerné

Les ateliers sont proposés aux enfants étudiant le basque en école élémentaire à Hendaye mais aussi aux enfants hendayais étudiant le basque en école élémentaire hors Hendaye.

En 2009/2010, 95 enfants de 5 à 11 ans ont pratiqué le basque pendant leurs loisirs en participant aux différents ateliers dispensés dans cette langue.

Action prévue en 2010/2011

Suite à l'enquête préalable réalisé en juin 2010 et en prenant en compte le nombre de participants de l'année précédente, six activités différentes seront organisées :

- 4 ateliers d'arts plastiques
- 2 ateliers de théâtre
- 1 atelier de chant basque
- 1 atelier d'éveil musical txalaparta et pandero
- 1 atelier d'expression corporelle/danse contemporaine
- 1 atelier de jeux d'opposition / karaté

Aurreikusi buxeta

Buxet hori 2010/2011 urteko aktibitateen obratzeko pentsatua da.

AURREIKUSI GASTUAK		AURREIKUSI DIRU SARTZEAK	
Pedagogia zerbitzuak	14 500	Aitamen parte hartzea	2 700
Materiala	350	CTLarentzat CAF dirulaguntza	1 200
Mission réception	200	CELarentzat DDCS dirulaguntza	200
Langile karguak	2 050	Hendaiako hiria	11 780
Antolaketa eta koordinazioa	5 580	EEP	6 800
OROTARA	22 680	OROTARA	22 680

Budget prévisionnel

Ce budget prévisionnel correspond à une année de fonctionnement avec les ateliers prévus pour l'année scolaire 2010/2011.

CHARGES PREVISIONNELLES		PRODUITS PREVISIONNELS	
Prestations de services pédagogiques	14 500	Participation des parents	2 700
Matériel	350	Subvention CAF pour le CTL	1 200
Mission réception	200	Subvention DDCS pour le CEL	200
Charges de personnel d'entretien	2 050	Commune d'Hendaye	11 780
Coordination et organisation	5 580	Office Public de la langue Basque	6 800
TOTAL	22 680	TOTAL	22 680

Erabakia :


Administrazio Kontseiluak erabakitzentzu du Hendaiako hiriari dirulaguntza baten ematea euskarazko animazioen **kostuaren herena** finantzatzeko, **5 000 €**ko dirulaguntza gehienez emanetza.

Aho batez onartua.

Délibération :

Le Conseil d'Administration décide d'allouer à la commune d'Hendaye une aide financière **à hauteur du tiers du coût** direct des animations en langue basque **dans la limite de 5 000 €** de subvention en vue de cofinancer les activités de loisirs en langue basque.

Adopté à l'unanimité.



1. ERANSKINA

ANNEXE 1

**2010-2016 urteetako hizkuntza politikaren
Jokabide Esparrua**
"Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun"

2010eko urria

Aurkibidea

Aurkibidea.....	2
Aitzin solasa	3
1. 2010-2016 urteetako Jokabide Esparruaren elaborazio metoda	5
1.1. Hizkuntza Politika Proiektua EEPren esku-hartze esparrua.....	6
1.2. Hizkuntza Politika Proiektutik 2010-2016 urteetako Jokabide Esparrura	7
1.2.1. Helburua : 2011-2016 urteetako ibilbide orriaren finkatza	7
1.2.2. 2011-2016 urteetako Jokabide Esparruaren elaborazio metoda	7
2. 2005-2009 urteetako bilanaren irakurketak, irakaspenak eta ondorioak 2011-2016 urteetako Jokabide Esparruaren proposamenetan	9
2.1. 2005-2009 ebaluaketaren irakurketa Hizkuntza Politika Proiektuaren erronka desberdinaren aitzinatzte heinari begira	10
2.2. 2005-2009 ebaluaketaren irakurketa, Hizkuntza Politika Proiektuaren estrategiaren ikuspuntutik: « Hiztun osoak/Belaunaldi gazteak ».....	11
2.3. 2005-2009 ebaluaketaren irakurketa, erabili metodoen ikuspegitik : ekintzen azpi- eremu koherenteak	12
2.3.1. Azpi-eremu koherenteen arabera egituratu esku-hartzearen eraginkortasuna	12
2.3.2. Ondorioz : azpi-eremu koherente desberdinaren identifikatzearren beharra	13
2.4. 2005-2009 ebaluaketaren irakurketa, obratze metodoen ikuspegitik : azpi-egitura funtzioen egituraketa progresiboa	15
2.5. 2005-2009 ebaluaketaren irakurketa, lan-taldearen egituraketaren ikuspegitik.....	16
3. 2011-2016 urteetako Jokabide Esparrua,hiztun osoen sortzearen zerbitzuko estrategia	17
3.1. Norabide norabide estrategiko bat : EEPren esku-hartzearen indartzea euskararen erabileren eremuetan – biziiza soziala, hedabideak, aisiaaldiak, argitalpena – une berean transmisiio eremuetako esku-hartzea egonkortuz – lehen haurtzaroa, irakaskuntza, helduen euskalduntzea –	19
3.2. Hizkuntza politikaren obratzeko metodo bat : ekintza azpi-eremu koherenteen araberako esku-hartzea lehenetsi, azpi-eremuaren errealitateak kontutan hartuz definitua izanen den estrategia berezi batetan bermatuz	20
3.3. Transmizio eta erabileren eremuetan lehentasunez landuko diren azpi-eremu hauztzea printzipio bikoitz baten arabera : estrategia printzipioa eta errealitate printzipioa	22
3.3.1. Erabileren eremuen indartzea	22
3.3.2. Hizkuntzaren transmisiokoaren egonkortzea	24
3.4. EEPren lanetan subsidiariotasun printzipioa nola obra.....	25
3.4.1. EEPk bere lagunza ekarri baino lehen, dirubide arrunten baliatzeari lehentasuna emaren dio.....	25
3.4.2. Politika arruntetan hizkuntza politikaren integratza	26
3.5. EEP eta Aholku Batzordearen arteko etengabeko kontzertazioa egonkortzea hizkuntza politikaren lantzeko eta jarraitzeko	26
3.6. EEPko injineritza baliabideen azkartzeari lehentasuna ematea, barneko antolaketa Jokabide Esparru berriaren arabera egokitua izan dadin	27
Ondorioak.....	32

Aitzin solasa

Euskararen Erakunde Publikoa - Interes Publikoko Egitura (GIP) 2004ean sortu da sei urteko iraunaldi batentzat eta 2010eko agorilean berriztatua izan da beste sei urterako. Berriztatze horren prestatzeko, EEPk 2005-2009 urteetan egin lanaren ebaluaketa egin du eta ondoko urteetako ibilbide orria marratzu nahi izan du.

Horretarako, EEPk Estatuaren zerbitzuei ikuskaritza misio bat eskatu die Erakunde Publikoak eraman duen jardueraren ebaluaketaren egiteko, ahal bezain objektiboki, egin lanaren kalitatearen neurtzeko gisan, baina baita kanpoko begirada aditu baten ukaiteko ere, eraman den politikari begira eta gauzatu diren obratze eta gidatze moldeei begira, etorkizunerako gomendioak ere ekarriz beharbada.

Ikuskaritza misioa sei hilabetez ari izana da Erakundearen lanaren ebaluatzen eta ikerketa honen txostena 2010eko uztailean helarazi dute.

Aldi berean, EEPk bi ariketa egin ditu :

- Auto-ebaluaketa lan bat, ahal bezain exhaustibo eta objektiboa egin nahi izan dena, egin den bidearen eta eraman den jardueraren lehen ondorioen neurtzeko, baita egiteko gelditzen diren lan-arloen neurriaren hartzeko ere. Ariketa hau, 2006ean onartu zen Hizkuntza Politika Proiektua – Erakunde Publikoko kideek erabaki hizkuntza politikaren dokumentu koadroa osatzen duena – oinarritzat hartuz egin da eta 2009ko irailean bururatu den txostena eman du (*EEPren 2005-2009ko jardueraren Behin-behineko azterketa* deitua).
- Bigarren ariketa, lehen azterketa lanaren ondoren, irekitzear den epealdirako Jokabide Esparru baten proposatzea izan da. Erakunde Publikoaren ondoko urteetarako eraman beharreko politikaren norabide estrategikoak finkatzen dituen ibilbide-orri proposamen bat da.

Gisa horretan, Jokabide Esparruaren aitzin-proiektu bat proposatu da 2009ko udazkenean, Aholku Batzordeko kideei aurkeztua ere beren iritzia eman dezaten, eta azkenik EEPren Administrazio Kontseiluan onartua behin-behineko forma batean. Behin-behineko Jokabide Esparru hori ikuskaritza misioari helarazi zaio, ikuskarien ikerketa lana eta ebaluaketa aberasteko xedez.

2011-2016 urteetako Jokabide Esparru hau behin-behineko Jokabide Esparrutik abiatuz egokitua izan da ondoko elementuak kontutan hartuz :

- ikuskaritza misioak eman gomendioak ;
- Aholku Batzordeko kideek egin proposamenak.

Aholku Batzordearekin elkar aditu ondoan, 2011-2016 urteetako Jokabide Esparrua onartu da EEPren 2010eko urriaren 20ko Administrazio Kontseiluan. Dokumentu honek 2011-2016 urteetako hizkuntza politika gidatuko du.

1. 2010-2016 urteetako Jokabide Esparruaren elaborazio metodoa

1.1. Hizkuntza Politika Proiektua EEPren esku-hartze esparrua

Botere publiko guziek 2006ko abenduan aho batez onartu zuten Hizkuntza Politika Proiektua, EEPko kideek erabaki **hizkuntza politikaren dokumentu koadroa da.** 2005-2009 jardueraren behin-behineko azterketak lehen irakasgai bat agerian eman du : Ireakitzean den epealdirako, Hizkuntza Politika Proiektuaren baliozkotasuna.

Izan ere, proiektu ausarta da, azterketa soziolinguistiko batetan oinarritua, eta lurraldean hunkituak diren eragile guziekin kontzertazioan eraikia izan dena. Ia hiru urteren ondoren, honen obratzea partez baizik ez da egin eta norabide eta lan-ardatz guzien eramateak, inbertsio azkar bat beharko du epe luzerako, heldu diren sei urteak barne.

Hizkuntza politika proiektuak finkatzen du **helburu nagusi bat – hiztun osoen kopuruaren emendatzea – eta lehentasun bat – belaunaldi gazteak.** 12 erronka nagusi zehazten ditu, 3 familiatan sailkatuak :

- **Hizkuntzaren transmisioa**, ondokoentz bitartez :
 - Familia bidezko transmisioa ;
 - Lehen haurtzaroaren harrera ;
 - Irakaskuntza.
- **Hizkuntzaren erabilera** ondokoetan :
 - Hedabideak ;
 - Aisialdiak ;
 - Argitalpena ;
 - Bizitza soziala ;
 - Toponimia.
- **Zeharkako eremuak :**
 - Helduen euskalduntzea ;
 - Hizkuntzaren kalitatea ;
 - Hizkuntza ikerketa ;
 - Motibapena.

Hamabi erronka horietatik bakoitzarentzat, Hizkuntza Politika Proiektuak ekintza estrategikoak finkatu ditu, eta bakoitzarentzat eraman beharreko ekintzak zehaztu.

Hizkuntza Politika Proiektuko ekintzak hain zehatzak (kasik exhaustiboak) izanki, egitasmo ausarta da. Hizkuntzaren gainbeheraren geldiaraztearen heinekoa eta transmisioa eta erabilera baikorki berrabiaraztearen heinekoa da. Honen obratzeak 2007an hasirik, urte luzeak beharrezkoak izanen ditu.

Hizkuntza Politika Proiektuaren obratzea ahalbidetzen da nahikeriaz beteriko desmartxa batean lan eginez, beti ere eragilearen hautu librea utziz.

1.2. Hizkuntza Politika Proiektutik 2010-2016 urteetako Jokabide Esparrura

1.2.1. Helburua : 2011-2016 urteetako ibilbide orriaren finkatzea

Hizkuntza Politika Proiektuak, **euskararen alde eraman beharreko ekintza zerrenda kasik exhaustiboa osatzen du**, erronka nagusien eta hautatu norabideen arabera antolatuak direnak.

Aldiz, Hizkuntza Politika Proiektua ez da hizkuntza politikaren obratzeko jokabide esparru bat, ez baititu lehentasunak eta ekintzen gauzatze metodoak definitzen, jakinez bestalde, horietako batzuk Hizkuntza Politika Proiektuaren abiatzearekin gauzatzen hasi direla eta beste batzuk aldiz ez.

Hona zergatik Euskararen Erakundearen berriztapen garaian beharrezko den heldu diren sei urteetan EEPren « **ibilbide orria** » definitzea, hots, **2011-2016** urteetan eginen dena :

- Hizkuntza politikaren koadroa den **Hizkuntza Politika Proiektutik** abiatuz ;
- hiru urtez obratzen ari izan ondoren egin **ebaluaketak** eskaini irakaspenetan oinarri hartuz (2009ko irailan egin ebaluaketa)
- Ikuskari Orokoren ebaluaketa txostenean agertzen diren gomendioak eta Ahoiku Batzordeko kideek egin proposamenak kontutan hartuz ;
- irekitzera doan epealdi honetarako **hautatzen den estrategiaren** arabera.

1.2.2. 2011-2016 urteetako Jokabide Esparruaren elaborazio metodoa

2010-2016 behin-behineko Jokabide Esparrua Hizkuntza Politika Proiektutik abiatuz egin da, 2005-2009 azterketak argitara eman ekintzen aitzinatze eta obratze heina kontutan hartuz, baita, gauzatuak diren eta eramatekoak diren ekintzen lehen bilduma horretatik haratago ere, ibili den bide horretatik urrunago eta jorratzekoak gelditzen direnetaz urrunago, 2005-2009 ebaluaketa horren **irakurketa kualitatibo** bat burutuz, helburutzat hartuz, eraman jardueraren analisi kualitatiboaren egitea, baita irakaspenak eta heldu den epealdirako ondorio posibleak ateratzea ere.

Irakurketa hori ikuspegi desberdinatik egina izan da, lehen-lehenik hiztun osoak sortzeko eta belaunaldi gazteak lehenesteko Hizkuntza Politika Proiektuarentzat hautatu den estrategiari begira, ondotik, iragan den epean eraman diren ekintzen obratzeko metodoari begira.

Emaitz, irekitzear den epealdirako estrategia baten sortzea izan da, 2010-2016 behin-behineko jarduera esparru proposamen batetan bildua. Jarduera esparru hori, 3. zatian aurkeztua da, 2005-2009 ebaluaketaren aurkezpen labur baten ondoren, 2. zatian.

**2. 2005-2009 urteetako bilanaren irakurketak,
irakaspenak eta ondorioak 2011-2016 urteetako
Jokabide Esparruaren proposamenetan**

2.1. 2005-2009 ebaluaketaren irakurketa Hizkuntza Politika Proiektuaren erronka desberdinaren aitzinatze heinari begira

Gauzatze mailan, Hizkuntza Politika Proiektuko erronkaz-erronkako aitzinatze heinaz irailean egin diagnostikoak ondorio hauek agerrarazi dizkigu :

- Hizkuntza Politika Proiektuko **bost erronkatan** maila desberdinako **politika egituratu hastapen bat** egon da :
 - **Harrera kolektiboa lehen haurtzaroaren** eremuan : haurtzaindegia elebidunen labelizatze dispositiboaren abiatzea, Kontseilu Nagusia eta Baionako Familia Lagunten Kutxarekin (CAF-FLK) partaidetza ;
 - **Irakaskuntza orokorra, irakaskuntzaren** eremuan : Hezkunde Nazionala/Kontseilu Nagusia etengabeko elkarraditze dispositiboaren obratzea 2005etik, euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaiztaren garapena eta egituraketa lortu nahi dituena ;
 - **Liburuaren ekonomia, euskarazko argitalpenaren** eremuan : ekoizpena, argitalpena eta hedapenaren laguntzeko dispositibo baten abiatzea ;
 - **Euskarazko teknikarien sarea, euskara bizitza sozialean** garatzeko eremuan : sarearen pixkanakako hedatzea tokiko aginteekin ;
 - EEP eta Unibertsitateen arteko partaidetza dispositibo baten marxban ezartzea **hizkuntza gaitasunaren zertifikazorako**, eta hizkuntza mailako **etengabeko prestaketarako plangintzen** osatzeak, **helduen euskalduntzearen** eremuan.
- **Bost eremutan ekintza puntualak** burutu dira:
 - **Hedabideetan** : profesionalizaterako ekintzakin alde batetik, hedabideentzako marketing eta promozio aholkularitzarekin; eta bestalde ETBren iparraldeko hedapen teknikoaren txostenaren jarraipena ;
 - **Hizkuntzaren kalitatean** : hizkuntza baieztapen puntualekin, eta interneteko frantses-euskara hiztegi baten martxan ezartzearekin;
 - **Toponimian** : hizkuntza baieztapen puntualak ;
 - **Ikerketan** : egitura eta proiekturei laguntza ekarriz ;
 - **Motibapenean** : euskarazko irakaskuntzari buruzko sentsibilizazio kanpainekin, hizkuntzaren trānsmisioari buruz guraso gazteen sentsibilizazio kanpainekin, euskarazko hedabideen sustapen kanpainekin ...
- **Bi eremutan ez da esku-hartzerekiz** izan:
 - Familia bidezko transmisioa ;
 - Áisialdiak ;

Lehen irakurketa honek agerian ezartzen du aldi berean, euskararen aldeko hizkuntza politika baten xutik ezartzeko egin den bidea, eta neurrazten du egitekoak diren zereginen izaria, Hizkuntza Politika Proiektuak finkatu zituen erronka nagusietan.

	TRANSMIZIOAren lan-eremuak	ERABILERAREN lan-eremuak	ZEHARKAKO lan-eremuak eta dispositiboak
Esku-hartze egituratua	- Lehen haurtzaroa : harrera kolektiboa - Irakaskuntza : irakaskuntza orokorra	- Argitalpena : ibururen ekonomia - Biziota soziala : euskara teknikariak	- Helduen euskalduntzea : zertifikazioa, formakuntza plangintzak
Esku-hartze puntuala		- Hedabideak : promozio karpainak, ETBren hedapena - Biziota soziala : euskararen erabileraaren azkartea eta hedatza	- Euskararen kalitatea : hiztegia, balezapenak - Toponimia : balezapenak - Ikerketa : egituren eta proiektuen sustengatzea - Motibapena : sensibilizazio karpainak
Landuak ez diren lan-eremuak	- Familiar transmizioa	- Aisialdiak	

2.2. 2005-2009 ebaluaketaren irakurketa, Hizkuntza Politika Proiektuaren estrategiaren ikuspuntutik : « Hiztun osoak/Belaunaldi gazteak »

Hizkuntza Politika Proiektuak helburu nagusi bat finkatzen du " hiztun osoak" eta lehentasun bat "belaunaldi gazteak".

Helburu horren lortzeko, analisi soziolinguistikoan oinarritzen den jardunbide bat hartu zuen : aldi berean eragitea hizkuntzaren transmisioko eta erabileran.

Jardunbide horren hautua, ondoko oharretan oinarritua da bereziki :

- Ezagutzaren garapena beharrezkoa da baina ez da aski;
- Hizkuntzaren erabilera baitezpadakoa da ikaspen osorako, bi mailatan :
 - 1] ERABILERA ikaspen prozesuaren etapa saihestezin gisa
 - 2] ERABILERA identifikazio eredu gisa belaunaldi berrientzat

2005 eta 2009 artean eraman jardueraren azterketak agerian eman du EEPk orain arte bere **indarrak hizkuntza belaunaldi gazteei transmititzeko baliatu dituela lehentasunez**. Lehen haurtzaroa, euskara hutsezko edo harrera elebiduneko egituren labelizatze dispositiboaren abiatzearekin eta irakaskuntza orokorra, irakaskuntza elebidunaren eskauntzaren garapenarekin (30 ikasguneen irekitzea bost ikasturtean) Erakundeak gehien barnatu dituen alorrik dira. Hautu honen oinarria, familia bidezko transmisioren hausturaren ondotik, hizkuntzaren transmisorako ardatz nagusia eskolan datzala ohartzean dago (ikus 2001 eta 2006ko inkesta soziolinguistikoak). Euskarazko irakaskuntza azkarrena den eremuetan 2001 eta 2006ko inkestetan ageri den 16-20 urte arteko hiztun kopuruaren gorakadak (Lapurdi barnealdean), analisi hau berresten du.

EEPk erabileraren alorrean ere abiatu ditu ekintzak, hara nola argitalpenean, hedabideen eremuan edo bizitza sozialean. Baino, aitortu beharda **engaiamendu hau ez dela aski gaur egun**. Alta,

Hizkuntza Politika Projektuaren oinarrian den analisi soziolinguistikoak erakutsi du **hizkuntza politika batek eraginkorra izatekotan, aldi berean eragin behar duela transmisioan eta erabileran.**

Hizkuntza Politika Projektuak finkatu estrategiari begirako ebaluaketaren irakurketak, agerian ezartzen du **ERABILERAREN eremuan jardueraren indartzearen beharra.**

- ikasleen erabilera, hizkuntzaren ikaspenaren egonkortzeko erabileraren bitarte : erabilera ikaspen prozesuaren etapa saihestezin gisa ;
- erabilera ikasleen ingurunean, erabileraren baldintzak sortzeko gisan : hizkuntzaren erabilera posible egiten duen ingurune bat sortu ;
- erabilera ikasleen ingurunean, belaunaldi gazteengan mintzatzeko gogoa sustatzeko gisan: erabilera identifikazio eredu gisa belaunaldi berrientzat.

2.3. 2005-2009 ebaluaketaren irakurketa, erabili metodoen ikuspegitik : ekintzen azpi-eremu koherenteak

2.3.1. Azpi-eremu koherenteen arabera egituratu esku-hartzearen eraginkortasuna

Egin den azterketak erakutsi du zenbait eremutan esku-hartze puntuak izan direla, ekintza berezi batzuk burutuz (hedabideak, bizitza soziala, hizkuntzaren kalitatea, ikerketa...), kasuen arabera, edo Hizkuntza Politika Projekta onartua izan aitzin abiatuak ziren ekimenen jarraipen gisa, edo berehalako behar bat erantzuteko gisan, edo eremu berri baten abiatzeko atari gisa.

Beste eremu batzuetan, **esku-hartzea azpi-eremu koherente batzuk landuz egituratu da, eremuak beren osotasunean kontutan hartuz eta aitzinetik definitu estrategia baten obratze progresibo eta koherentearekin :**

- lehen haurtzaroan, harrera kolektiboaren azpi-eremuan esku-hartzea egituratua izan da, aldiz, oraingoz, ama-laguntzaileek egiten duten familiako harreraren azpi-eremuan ez da esku-hartzerik izan ;
- irakaskuntzan, politika bat progresiboki eraikia da irakaskuntza orokorraren azpi-eremuan, aldiz, irakaskuntza teknologiko eta profesionalaren azpi-eremuak, eta goi ikasketetakoak ez dira landu ;
- argitalpenean, liburuaren ekonomiaren azpi-eremuan esku-hartzea egituratua da, oraingoz bazter utziz irakurketa publikoaren azpi-eremua ;
- helduen euskalduntzean, euskara mailaren egiaztazearen azpi-eremuan, egituraketa progresibo bat ematen ari da eta hizkuntza mailako formakuntza profesionalaren azpi-eremua, egituratze bidean da, aldiz, publiko zabalari zuzendua zaion formakuntza klasikoan ez da esku-hartzerik izan oraingoz.

Obratze metodoen desberdintze honek eta esku-hartze molde desberdinaren analisiak agerian ezartzen du **esku-hartzearen eraginkortasun handiagoa dela eremu batetan, azpi-eremu koherenteen arabera egiten delarik, beren osotasunean kontutan hartuak direlarik eta estrategia bat aitzinetik definitua delarik, molde progresibo eta koherentean.** Izan ere, esku-hartze molde honek kontutan hartzen du ezpi-eremu horiek berezko logika eta antolaketa badutela eta heiekin koherentea den hizkuntza politika bat eraikitzea bideratzen du ; azpi-eremuari

berez dagozkion antolaketak, koadro legalak, eremuko eragileak, eskumena duten antolakundeak eta hauen esku-hartze estrategiak, baita politika sektorialak ere kontutan hartuz. Gisa horretan, esku-hartze estrategia eraikia da, eta honen obratzeko, partaidetzen oinarritu dispositiboez baliatzen da, politika sektorialak eta hizkuntza politika publikoa koherentzian ezartzea posible eginez, eskuduntzen partekatzearen errespetuan, jakitateen bateratzea, baliabideen eta politika sektorialek sortu dispositiboen mutualizazioa lortuz, frantsesetan jadanik existitzen den eskaintzari euskarazko sail bat gehitzeko xedez.

Azken finean, estrategia bereziak aitzinetik definituz, **eremu horietan euskararen problematikaren integratze progresiboa, koherentea eta epe luzerakoa posible izaten da**. Horri esker, **euskararen problematika, politika sektorialean kontutan hartua da eta emeki-emeki hizkuntza politika integratu bat eraikitzen da**, epe-luzerako pentsatua dena, betiko ez errateagatik.

Analisi honek agerian ezartzen du **azpi-eremu koherenteen araberako esku-hartze molde honi lehentasuna** eman beharra, aldi berean atzikiz bistan dena, hautatutako ekintza puntualeen burutzeko aukera, abiatuak diren jardueren jarraipenerako edo behar bati erantzuteko edo eremu baten politikaren abiapuntu gisa, bere balioa baitu.

2.3.2. Ondorioz : azpi-eremu koherente desberdinaren identifikatzearren beharra

Metodologiazko hautu honen ondorioa da **Hizkuntza Politika Proiektuko eremu bakoitzarentzat, ekintza azpi-eremu koherente desberdinaren identifikatzeko** beharra. Identifikatze honek erran nahi du Hizkuntza Politika Proiektuaren deseraikitze eta berreraikitze lan bat, Proiektuko 12 eremuak landuz, bakoitzean azpi-eremu desberdinak bereziz eta bakoitzak hizkuntza politikan duen rolaren arabera sailkatuz.

Ekintza azpi-eremu koherente gisa identifikatua da, logika eta antolaketa propioak dituen azpi-eremu bat. Azpi-eremu politika koherente baten obratzeak, bere kontuan hartze globala eskatzen du, eta politika honen koherentzia ez da zalantzan ezartzen, eremu bereko beste azpi-eremuak ez direlako aldi berean tratatuak. Azpi-eremu bakoitzean esku-hartzea molde independentean eraman daiteke hola, eremuko beste zatietan esku-hartzea aldi berekoa izatera bortxatu gabe. Eremuaren koherentzia hau dela eta, esku-hartze estrategia berezi baten bidez lantzen ahalko da, arabera definitua eta azpi-eremuko ezaugarriei koherentzian.

Lan honek 40 azpi-eremu identifikatzea ekarri du.

Eremu eta azpi-eremu bakoitza hola bereiziz, **berriz kalifikatuak izan dira, hiztun osoak sortzeko prozesuan duten eraginaren arabera**.

Eragiketa honi esker lortu da :

- « **oinarrizko jarduera** » **ekintza-eremuen finkatzea :**
 - hizkuntzaren **transmisioa** eta **erabilerarenak**,
 - hizkuntza politikaren oinarrizko jarduera osatzen dutenak,
 - “**hiztun osoen sortze**” prozesuan zuzenean eragiten dutenak.
- **azpiegitura funtzioak identifikatzea :**
 - zeharkako eremu eta dispositiboak, baita laguntza/sostengu funtzioak ere,
 - ez dutenak zuzenean eragiten “**hiztun osoen sortze**” prozesuan,
 - baina baitezpadakoak direnak transmisioko eta erabileraren “**oinarrizko jarduera**” eremuoen obratzeko.

Ahalbidetu du eremuen eta hauen azpi-eremuen ondoko sailkapena :

- **Hizkuntzaren transmisioaren “oinarrizko jarduera” eremuak eta hauen azpi-eremuak.**
 - Familia bidezko transmisioa :
 - Familia bidezko transmisioa
 - Lehen haurtzaroko harrera, 2 azpi-eremutan deklinatura :
 - Harrera kolektiboa ;
 - Familia harrera.
 - Irakaskuntza 3 azpi-eremutan deklinatura :
 - Irakaskuntza orokorra ;
 - Irakaskuntza teknologikoa eta profesionala ;
 - Goi-mailako irakaskuntza.
 - Helduen euskalduntzea (etengabeko prestaketatik at) :
 - Helduen euskalduntzea.
- **Hizkuntzaren erabileraren “oinarrizko jarduera” eremuak eta hauen azpi-eremuak.**
 - Hedabideak 4 azpi-eremutan deklinatuak :
 - Telebista ;
 - Irratia ;
 - Prentsa idatzia ;
 - Web hedabideak.
 - Aisialdiak 5 azpi-eremutan deklinatuak :
 - Harrera egiturak (aisialdi guneak eta egonaldiak) ;
 - Kirol heziketa ;
 - Kultura eta heziketa artistikoa ;
 - Zerbitzuen kontsumoa ;
 - Erosgaien kontsumoa.
 - Argitalpena 2 azpi-eremutan deklinatura :
 - Liburuaren ekonomia ;
 - Irakurketa publikoa.
 - Euskararen presentzia bizitza sozialean 6 azpi-eremutan deklinatura ;
 - Administrazioa, zerbitzu publiko eta para-publikoak ;
 - Komertzioa eta pertsonentzako zerbitzuak ;
 - Osasun eta sozial saila ;
 - Garraioak (azpiegitura eta zerbitzuak) ;
 - Gertakariak eta ikusgarriak.
 - Enpresa pribatuak.

Praktikan neurtu beharko da hemen a priori azpi-eremu gisa ekarriak direnak, eremu oso gisa konsideratu beharko ote diren, hauek ere azpi-eremutan deklinagarri.

➤ **Azpi-egitura funtziokoak :**

- Laguntza eta sostengu funtziokoak :
 - Hizkuntza mailako etengabeko prestaketarako laguntza-funtzioa ;
 - Ekoizpen eta baieztapen linguistikorako laguntza-funtzioa, hau bera sei azpiegitura funtziotan oinarritua : ikerketa, terminologia, lexikologia, , toponimia, itzulpengintza, baieztapena;
 - Behatokia, jarraipen, ebaluaketa eta informaziorako laguntza-funtzioa ;
 - Euskararen presentzia eta erabileraren garatzeko estrategiaren obratzeko laguntza-funtzioa ;
 - Hizkuntza eragileen profesionalizaterako laguntza-funtzioa ;
 - Sentiberatze estrategien obratzerako laguntza-funtzioa.
- Dispositiboak :
 - Hizkuntza gaitasun egiaztatzea ;
 - Mugaz gaindiko lankidetza hizkuntza politika mailan, bi azpi-eremuz osatua : Eragile pribatuen laguntzarako eta elkarlan teknikorako dispositiboak ;
 - Tokiko aginteen mailako hizkuntza politikaren obratzea ;
 - Konsulta : aholku batzordea.

Ekintza azpi-eremu bakoitzak, izan dadin oinarrizko jarduera eremuakoa edo azpi-egitura funtzioidentifikatua, badu edo ukanen du esku-hartzearen unean, beretako bereziki sortu esku-hartze estrategia, eremuko eragile, antolakunde, praktika edota politika sektorialak kontutan hartuko dituena eta hauekin koherentea izanen den hizkuntza politika bat eraikiko duena.

2.4. 2005-2009 ebaluaketaren irakurketa, obratze metodoen ikuspegitik : azpi-egitura funtzioen egituraketa progresiboa

2005-2009 jardueraren azterketak agerian eman du EEPk esku-hartze hastapen bat abiatu duela, transmisio eta erabileraren eremuetan eraman hizkuntza politikaren zerbitzuko diren eta azpi-egitura gisa identifikatu ditugun zeharkako eremuetan.

Gisa honetan, funtzioko edo dispositibo funtzionalak eraiki dira :

- Mugaz gaindiko lankidetzarako dispositibo ;
- Hizkuntza politikaren tokiko obratzerako dispositibo ;
- Aholku Batzordea.

Beste funtzioko edo dispositibo funtzionalak eraikitze bidean dira :

- Hizkuntza arloko etengabeko prestaketarako laguntza ;
- Eragileen profesionalizaterako laguntza ;
- Hizkuntza egiaztatze dispositibo ;
- Behatokia, jarraipea eta ebaluaketa funtziokoak.

EPPren jardueraren ebaluaketak agerian eman du beraz **azpi-egitura funtzioen egituraketa beharra, transmisio eta erabileraren oinarrizko jarduera eremuakoa obratzearekin batean, beharrak agertu aratu**. Izan ere, azpiegitura funtziokoak, euskarri funtziokoak baitezpadakoak dira hizkuntza politika orokorraren behar bezala eramateko.

2.5. 2005-2009 ebaluaketaren irakurketa, lan-taldearen egituraketaren ikuspegitik

2009an lan-taldearen antolaketak misio kargudunen pixkanakako espezializatze bat agerrarazi du, eremu bakoitzeko politikak egituratz doazen heinean. Gisa honetan, misio kargudunak espezializatuak dira lehen haurtzaroan, irakaskuntzan, argitalpenean, helduen euskalduntzean edo eragileen sustatzeko dispositiboan (proiektu deialdia). Espezializatze honi esker jakitarea, esperientzia eta trebetasunak kapitalizatu ahal izan dira. Beste eremu batuetan aldizkako ekintzak burutzen dira, ekimenak « buru » ezberdinek eramaten dituzte eta horrek zaitzen du trebetasun eta jakitateen kapitalizatzea...

2009 urte hondarrean, Hizkuntza Politika Proiektuaren lau eremutan badago animazio berezitua :

➤ Lehen haurtzaroa	0,50 DOB
➤ Irakaskuntza (ikasmateriala, deialdia)	0,50 DOB
➤ Argitalpena	0,50 DOB
➤ Helduen irakaskuntza	0,50 DOB

Hizkuntza Politika Proiektuaren hiru eremutan dago animazio partekatua :

➤ Hedabideak	0,50 DOB
➤ Irakaskuntza (Eskaintzaren garapena eta egituraketa kualitatiboa)	0,50 DOB
➤ Bizitza soziala	0,25 DOB

Azkenik, ondoko dispositibo eta azpiegitura-funtzioak segurtatzen dituzte horretarako izendatu pertsona batzuek :

➤ Hizkuntza jarduera proiektu Deialdia	1,00 DOB
➤ Behatoki funtzioa, barne EEPren web ataria	0,75 DOB
➤ Administrazioa, kudeaketa eta idazkaritza	1,50 DOB
➤ Zuzendaritza	1,50 DOB

Antolaketa honen analisiak, aitzineko lerroaldietan agertu irakaspenei loturik, (metodoaren aldetik) **argi uzten du lan-taldearen espezializazio beharra**, eremuko **politika egituratu baten obratzearekin batera**. Eremu baten ardura hartzeak, erantzukizuna eta norberaren jakitarearen, esperientziaren eta trebetasunen pixkanakako bereganatzea dakarza. Lan-taldearen espezializatze progresibo hau, heldu diren epeetan jarraitu beharrekoa da.

3. 2011-2016 urteetako Jokabide Esparrua : hitzun osoen sortzearen zerbitzuko estrategia

Hizkuntza Politika Proiektuaren gauzatze bidearen aitzinatze heinaren eta obratzeko gelditzen den zatiaren neurketa zehatzaz gain, 2005-2009 urteetan egin lanaren ebaluaketatik atera ahal izan diren irakaspen nagusiak ondokoak izan dira :

- hizkuntzaren transmisioari buruz gehien bat itzulia izan dela indarra, hizkuntzaren erabileraren eremuan esku-hartze puntual batzuez lagundurik ;
- azpi-eremu koherenteen arabera egituratu esku-hartzearen eraginkortasun hobea dela ;
- transmisioa eta erabileraren oinarrizko jarduera eremuetako esku-hartzearen gidaritza egokiarentzat baitezpadakoak diren azpi-egitura funtzioen aldi bereko egituraketa beharra;
- engaiatu politiken animazioaren eta obratze eraginkorren bermatzeko, lan-talde profesionala paraleloki espezializatu beharra.

Ondoren aurkeztua den 2011-2016 urteetako Jokabide Esparrua, irakaspen horien argitara egina izan da. Bost printzipio izan dira bestalde honen prestaketen oinarrian :

- hizkuntza Politika Proiektuan finkatua zen **helburuaren lortzea** posible eginen duen politika baten obratza : **euskal hiztun osoen sortzea, belaunaldi gazteak lehenetsiz** ;
- politika **eraginkor, efiziente eta iraunkor** baten gauzatzea, etengabeko partaidetza eta mutualizazioa bilatzen dituena ;
- politika **errealista, progresibo eta koherente** baten hedatza ;
- **ekintzek hunkituko duten publiko kopurua** eta **aitzinetik egon daitezkeen oinarriak** – eragileak, jarduerak, politika sektorialak – kontutan hartza, hauetan esku-hartza eraginkorki oinarritzeko gisan ;
- **hautu librean oinarritua, bultzatzaila eta gógoa sustatuko** duen politikaren obratza.

2011-2016 urteetako Jokabide Esparru honen ezaugarriak ondokoak dira :

- **norabide estrategiko bat** : *EEPren esku-hartzearen indartzea euskararen erabileraren eremuetan – bizitza soziala, hedabideak, aislaldiak, argitalpena –, une berean transmisió eremuetako eskua-hartza egonkortuz – lehen haurtzaroa, irakaskuntza, helduen euskalduntza –;*
- **Hizkuntza politikaren obratzeko metodo bat** : *ekintza azpi-eremu koherenteen araberako esku-hartza lehenetsi, azpi-eremuaren errealtitateak kontutan Hartuz definitua izanen den estrategia berezi batetan bermatuž* ;
- transmisió eta erabileraren eremuetan **lehentasunez landuko** diren azpi-eremu en hautatza, **printzipio bikotz** baten arabera : estrategia printzipioa eta errealtitate printzipioa ;
- **EEPren lanetan, subsidiarotasun printzipioaren obratza sistematikoki, hau da :**
 - EEPk beré lagunza ekarri baino lehen, dirubide arrunten baliatzeari lehentasuna eman ;
 - politika arruntetan hizkuntza politikaren integratzea.

- **EEP eta Aholku Batzordearen artean etengabeko kontzertazio baten plantan jartzea**, obratu hizkuntza politikaren lantzeko eta jarraitzeko ;
- **EEPko ingeniaritza baliabideen azkartzeari lehentasuna ematea**, barneko antolaketa Jokabide Esparru berriaren arabera egokitua izan dadin

3.1. Norabide norabide estrategiko bat : EEPren esku-hartzearen indartzea euskararen erabileren eremuetan – bizitza soziala, hedabideak, aisialdiak, argitalpena –, une berean transmisió eremuetako esku-hartzea egonkortuz – lehen haurtzaroa, irakaskunza, helduen euskalduntzea –

Hautatu den estrategia da **aldi berean obratza transmisió/erabilera bikotea, finkatu helburua lortzeko : hiztun osoen sortzea.**

Estrategia honen hautuak oinarrian ditu Hizkuntza Politika euskarritzen duten inuesta soziolinguistikoa : **transmisióbaitezpadakoa** baldin bada hizkuntzaren ikaspenerako, **hori bezain garrantzitsua da erabilera**, bi neurritan :

- **erabilera, belaunaldi berrien ikas-prozesuaren zati osoa den neurrian** : erabileren bidezko ikaspena saihestezina den etapa da hizkuntza baten ikas-prozesuan, hau gabe, ikaspena osatugabea geldituko bailitzateke;
- **erabilera, belaunaldi berrientzako identifikazio eredu gisa** : bizitza sozialeko eremu guzietan hizkuntzaren erabileren garatzea ikas-prozesuaren lorpenetako faktore bat da. Izan ere, bizi arrunteko eremuak izanik, aktoreak gehiengosu eta helduak direlarik, hauek identifikazioari esker, gogoa ematen diete ikas-prozesuan sartuak diren haurrei, ikasten segitzeko baina baita erabilen ere : helduak hizkuntzaren erabilen ikustea, haur eta gazteei ere euskara handitzeko eta helduak bilakatzeko gogoa ematen die.

Alta, 2005-2009 urteetako lanaz egin ebaluaketak agerian ezarri du hizkuntzaren transmisióaren garapenaren eremuetan egin indarrek, osatuak izan behar dutela orain, hizkuntzaren erabileren garapenaren aldeko esku-hartze bultzatzailea eta egituratu baten bitartez.

Denboran eta tokian **aldi berean obratu nahi dira transmisióaren eta erabileren eremuak** ondoko helburuen lortzeko gisan :

- Erabileren bitartez, transmisióaren emaitzak hobetu :
Íkaskuntza ↔ Erabilera
- Hizkuntzaren erabilpen osoko guneei sortze progresiboa, bere funtzió guzietan.

Horri jarraikiz, EEPk proposatzen du **esku-hartzearen indartzea euskararen erabileren garatze eremuetan, progresiboki eta koherentekei erabileren eremu guziak irekiz :**

hedabideak, argitalpena, aisialdiak, bizitza soziala ;

gisa horretan, emeki-emeki, hiztunek arlo guzietan euskara baliatzen ahalko dute, hau baita hizkuntzaren jabetza osoa erdiesteko baldintza ; **aldi berean transmisió eremuetako esku-hartzea egonkortuz : lehen haurtzaroa, irakaskunza, helduen euskalduntzea.**

3.2. Hizkuntza politikaren obratzeko metodo bat : ekintza azpi-eremu koherenteen araberako esku-hartza lehenetsi, azpi-eremuaren errealtitateak kontutan hartuz definitua izanen den estrategia berezi batetan bermatuz

2005-2009 azterketak agerian ezarri du esku-hartza azpi-eremu koherente batzuen arabera lantzearen eraginkortasuna, eremuak beren osotasunean kontutan hartuz eta aitzinetik definitu estrategia baten obraze progresibo eta koherentearekin. Oroigarri gisa, ekintza azpi-eremu koherente bat definitu daiteke eremu baten barneko azpi-talde bat bezala, logika eta antolaketa propioa baititu ezaugarri, eta ondorioz, esku-hartze berezi bat ukanen du, logika eta antolaketa horiekin koherentzian definitua.

Metodologia mailan, EEPk, 2011-2016ko ibilbide orrian finkatu lan-eremu bakoitzean, **ekintza azpi-eremu koherenteak esku-hartza hautatu du. Ekintza azpi-eremuak orokorki pentsatuak dira eta estrategia bat definitua da eragileekin lankidetzan, azpi-eremuaren errealtateen arabera.**

Hautu hori eginez, EEPren xeda da, azpi eremu bakoitzarentzat, hizkuntza politika eta azpi-eremuaren politika berezia koherentzian ezartzea, emeki-emeki hizkuntza politika integratu bat eraikitzeko, epe-luzeko kontutan hartza segurtatuz.

Jokabide hautu honek behartu gaitu Hizkuntza Politika Proiektuaren « deseraikitze » eta « berreraikitze » lan baten egitera (ikus 2.3.2). Horri esker, transmizio eta erabilera arloetan, 8 eremu eta 25 azpi-eremu identifikatuak izan dira, EEPk manera independentean jorratzen ahal dituenak. Hauek dira :

OINARRIZKO JARDUERA	TRANSMIZIOA	Familia transmizioa	Familia transmizioa	
		Lehen haurtzaroa	Lehen haurtzaroaren harreka kolektiboa	Lehen haurtzaroaren harreka kolektiboa
		Irakaskuntza	Irakaskuntza orokorra	Irakaskuntza teknologikoa eta profesionala
		Helduen euskalduntzea (formakuntza profesionalaz kanpao)	Helduen euskalduntzea	Goi-mailako irakaskuntza
		Bizitza soziala	Administrazioak, zerbitzu publikoak eta parapublikoak	Saltegiak, jende zerbitzuak
ERABILERA		Aisialdiak	Egunazko aisialdirako zentroak	Gizarte eta osagarri alorak
		Hedabideak	Telebista	Garraioak (azpiegiturak eta zerbitzuak)
		Argitalpena	Liberuaren ekonomia	Idatzizko prentsa
			Irakurketa publikoa	Internet hizteko prentsa

Gidaritza eskema

EEPk esku-hartzea erabaki duen azpi-eremu bakoitzarentzat esku-hartze estrategia egokitutu bat definituko da, eremuaren errealtitateekin koherentzian izanen dena.

Esku-hartze estrategia hori gidaritza eskema baten bidez definituko da. Gidaritza eskemak zehaztuko ditu :

- norabide estrategikoak,
- obratu beharreko lanaren egituraketa neurriak,
- neurri horien obratzeko beharrezkoak diren lagunza neurriak,
- mobilizazioakoak diren lagunza funtziak.

Esku-hartze estrategia definituko da azpi-eremuaren errealtitateak eta logikak ahal bezain hurbiletik segituz.

Ekintza-fitxak

Azpi-eremu bakoitzari berezituak zaizkion gidaritza eskema horiek, ekintza-fitxetan deklinatuko dira. Ekintza-fitxa bat definituko da egin nahi den ekintza bakoitzarentzat. Hona zer zehaztuko duen :

- Hizkuntza Politika Proiektuaren zein erronkari lotzen zaion ekintza ;
- ekintzaren aurkezpena (zer operazio egiteko asmo den, ekintzaren inguruko komunikazioa, nori zuzendua zaion ekintza, partaidetza teknikoak badiren eta zein, partaide diruztatzaileak,...) ;
- ekintza horri lotuak zaizkion beste ekintzak : oinarrizko ekintza behar bezala obratzeko beharrezkoak diren lagunza edo sostengu ekintzak (informazio, sensibilizazio ekintzak, edo bultzatze neurriak...) ;
- nahi diren ondorioak (kuantitatiboki eta kualitatiboki) ;
- jarraipen eta ondorio erakusleak ;
- aurreikusia den egutegia.

Gisa horretan, egin nahi diren ekintzak zehazki definituko dira aitzinetik, eta ondotik, jarraipena, lanarlo bakoitzarentzat sortuko den lan-taldeak segurtatuko du.

3.3. Transmizio eta erabileraren eremuetan lehentasunez landuko diren azpi-eremuen hautatzea printzipio bikoitz baten arabera : estrategia printzipioa eta errealtate printzipioa

Hemen aurkezten den lehentasunen proposamena, hautu lan baten ondorioa da, aitzinetik definitu estrategiatik abiatuz, irekitzear den epealdian landu nahi diren azpi-eremuen artean egina.

Lehentasunen finkatzeko irizpideak ondokoak dira :

- **hautatu den estrategia orokorrari erantzutea :**
 - o erabileraren sail guzietan esku-hartza ;
 - o transmisoaren egonkortzearekin batean ;
 - o beharrezkoak diren azpiegitura funtziak egituratuz.
- **estrategia printzipioa eta errealtate printzipioa kontutan hartza aldi berean :**
 - o **estrategia printzipioa** : hunkitzen den publikoa, hizkuntza entzuten eta erabiltzen pasatzen duen denbora kontutan hartuz
 - o **errealtate printzipioa** : jarduera hastapen bat : eragile/praktika edo eremuko politiketan, zeinetan oinarritzen ahalko den EEPren ekintza

3.3.1. Erabileraren eremuen indartzea

EEPk euskararen erabilera mailako esku-hartzearen indartzeko hautua egin du, aldi berean landuz, molde progresibo eta koherentean, erabileraren eremu guziak. Esku-hartza ondoko eremu hauetan guzietan izan beharra da beraz, guzietan badelarik jada gaur egun, hasialdietan izan ezik, EEPren ekintza hastapen bat, nahiz eta barnatze eta egituraketa hein desberdinakoak izan :

- hedabideak, gizartean euskararen hedatzeko ardatz nagusi bat osatzen baitute, bereziki gazteen artean, hauen euskararekiko harreman denbora luzatzen baitute eta erabileraren sustatzen ;
- aisialdiak, euskararen ikaspenak erabileraren mailan gauzatzeko tresnak bilaka daitezen, euskārazko aisialdi eskaintzaren egituraketaren bitartez. Izan ere, denbora libreak toki estrategikoa betetzen baitu haur eta gazteen hezkuntza prozesuan, eta beharrezko da baldintzak sortea, haurrek hezkuntza gune egituratuetatik kanpo euskara baliatzeko parada ukana dezaten, euskārazko eta euskararen irakaskuntzaren osagarri gisa, placerean eta aisialdian, praktika horrek baitu ere bestalde eragin zuzenik irakaskuntzan eta motibapenean ;
- argitalpena, oinarrizko euskarria baita bai ikaspenaren aldetik eta bai hizkuntzaren erabileraren aldetik, bertan biltzen baitira ekoizpen editoriala eta bere publikoa, liburuaren katearen egituraketa molde egokian eginez gero, baina baita irakurketaren sare publikoan euskārazko argitalpen eskaintza kontutan hartzen bada ere ;
- biztza soziala zentzu zabalean, bertan, euskararen presentziaren garapena eta erabilerari esker, progresiboki euskararen erabileraren aldeko ingurune baten sortza lortu behar baita, eta baita hizkuntzari estatus bat eskaintza ere, ikasleei hizkuntzaren ikasteko eta hiztunei euskaraz mintzatzeko motibapena emanen diena.

Ondorioz, EEPk erabileraren eremu horietatik bakoitzean aldi berean aritzeko xedea du, bere esku-hartza, molde progresibo eta egituratuan antolatuz azpi-eremuka, ondoko moldean :

- **Bizitza sozialean :**

- administrazioak eta zerbitzu publiko eta para-publikoen azpi-eremuaren esku-hartzearekin, bai ukitzen den publikoarengatik baina baita hizkuntzaren prestigio sozialaren mailako ondorioengatik ere, alde batetik euskara teknikarien sarearen bitartez jarraituz hurbileko zerbitzu publikoetan euskararen erabileraren garapenaren aldeko EEP eta Tokiko aginteeek duten partaidetza politika, eta bestaldetik, Erakunde Publikoaren kide diren erakundeengen oinarri hartuz hauen zerbitzuetan euskararen erabileraren garatzeko ;
- garraioen azpi-eremuaren euskararen presentzia eta erabileraren garapenaren alde, hots azpiegitura eta publikoari eskaini garraio zerbitzuen osotasun gisa ulertuak, zeinahik izanik ere hauen garraio-moldea, politika global eta egituratu bat engaiatz, partaide posibleak izan daitezkeenetan oinarrituz (aireportua, ASF, STAB, tokiko agintea...);
- bigarren urrats batetan, (2014-2016 epealdian) osasuna, komertzioa eta pertsonentzako zerbitzuen azpi-eremuetan esku-hartuz.

Hautu horrek (bi azpi-eremu lehentasunez lantzeak) ez du kentzen beste azpi-eremuetan ekintza puntual batzu egiten ahalko direla, edo euskararen alde lan egin nahi duten eragileen laguntzeko, edo ager daitezken aukerak erabiltzeko, bereziki eragileen aktualitateari lotuak izanen zaizkienak.

- **Aisialdietan :**

- lehen urrats batetan (2011-2013 urteetan), bi lan-ildo berri irekiz :
 - aisialdiko harrera-gune kolektiboak (aisialdi gunek eta egonaldiak), kontutan hartuz euskararekiko harreman denbora handia dela bertaratzen direnentzat eta jadanik badirela alor honetan ari diren eragileak, hauengan oinarritu daitekeelarik euskārazko eskaintzaren egituratzeko (eragile publiko eta pribatuak, praktikak, eskuduntza duten zenbait instituzioekin abiatu partaidetzak : tokiko agintea, FLK-CAF lehen haurtzaroan) ;
 - Kultura eta arte hezkuntza, jadanik abiatuak diren partaidetza lanetan oinarri hartuz : Familien Laguntza Kutxarekilakoa (FLK-CAF) eta Kontseilu Orokorreko Irakaskuntza eta Kultura zuzendaritzekilakoa eta Ama-Haur-Babesarekilakoa (AHB-PMI).
- bigarren urrats batetan, (2014-2016 epealdian) kirol heziketa eta zerbitzuen kontsumoaren azpi-eremuetan esku-hartuz.

- **Hedabideetan :**

- lehen urrats batetan politika koherente eta egituratu bat eraikiz progresiboki telebista eta irratiaaren azpi-eremuetan, ukitzen duten publiko kopuruarengatik eta digitalerako pasaiaren unea izateak, euskārazko eskaintzaren garapena lagundi dezakeelako. Lehentasunezko esku-hartze honek ez ditu ahantziko, prentsa idatziaren eta web hedabideen azpi-eremuetan puntualki abiatu diren ekintzak ;

- bigarren urrats batetan (2014-2016 epealdian) prentsa idatziaren eta web hedabideen azpi-eremuetan esku-hatuz.
- **Argitalpenean :**
 - liburuaren ekonomiaren azpi-eremuan abiatua den politika jarraituz ;
 - irakurketa publikoaren azpi-eremuan politika global eta egituratu bat irekiz, Kontseilu Orokorraren irakurketa publikoaren dispositiboan oinarri hartuz.

3.3.2. Hizkuntzaren transmisiokoaren egonkortzea

Hizkuntzaren transmisiokoaren egonkortzeak erran nahi du, irakaskuntzan – euskararen ardatz nagusi gisa- eta lehen haurtzaroko harreran –transmisiokoaren gune saihestezin gisa- iragan den epealdian abiatu esku-hartzearen obratza eta azkartzea :

- **Lehen haurtzaroan :**
 - harrera kolektiboaren azpi-eremuan, labelizatze dispositiboa obratuz, euskarazko harrera kolektiboaren eskaintza progresiboki garatzeko ;
 - 0 eta 2 urte arteko haurren %90 ukitzen duen familia harrerako azpi-eremuan progresiboki esku-hartuz, ama-laguntzaileen sarean oinarrituz (Kontseilu Orokor/ FLK-CAF dispositiboa).
- **Irakaskuntzan :**
 - irakaskuntza orokorraren azpi-eremuaren obratza jarraituz :
 - eskaintzaren garapena lantzen jarraituz ;
 - egituraketa kualitatiboaren lan arloan gorakada progresibo bat emanez, irakaskuntzak, ahalik eta molde eraginkorrenean lagundi dezan hiztun osoen sortze prozesua.
 - progresiboki esku-hartza abiatuz irakaskuntza teknologikoa eta profesionalaren azpi-eremuan baita goi-irakaskuntzakoan ere, hizkunta politikak eremu desberdinetan sortu lanbide formazioaren beharretatik abiatuz (adb. lehen haurtzaroko lanbideetarako formazioa, osasun lanbideetarako formazioa...).

Hizkuntzaren transmisiokoaren egonkortzeak, **familia bidezko transmisiokoaren** eremuaren politika baten abiatzea eskatzen du ere. Euskara teknikarien dispositiboen bitartez tokiko aginteeek abiatu ekimenak kontutan hartuz, EEPk tokiko lehen esperientzia eta borondate hauetan oinarri hartu nahi luke, partaidetza bidezko esperimentazio baten sortzeko eta esperimentatzeko hasteko, borondatea adieraziko lukeen lehen Herri Elkargoarekin, gurasoen sentsibilizazio estrategiari buruz, publiko berezi bati zuzendu formakuntza eskaintza baten egituraketan oinarri hartuz.

Helduen euskalduntzearen eremua bi ikuspegitatik begiratua izan daiteke : alde batetik publiko guziei zuzendu ikuskuntza eskaintza eta bestaldetik, eremu desberdinetako langileek dituzten hizkuntza mailako etengabeko prestaketa beharrentzako erantzuna, beren lanbidea euskaraz egiteko gai izan daitezen (lehen haurtzaroan, aginte publikoetako agenteak...). Bigarren ardatz honek, hizkuntza mailako etengabeko prestaketa lagunza-funtzioaren egituraketa bat beharrezkoa du,

euskararen erabileraren aldeko ibilbideari lotzen zaizkion eragile publiko eta pribatuen zerbitzuko. EEPren xedea da lehentasunez egituratzea lagunza-funtzio hau (ikus hemen azpian) eta helduen irakaskuntzako eragileekin karia horretara osatu partaidetza iraunkorrean oinarritzea, publiko zabalari zuzendua zaoan ohidurazko eskaitzaren egituraketa lantzeko.

Ondoko taulan agertzen da 2011-2016 urteetako aurreikusia den egutegia, erabileraren eta transmizioaren azpi-eremuen irekitzeari buruz :

ONARRIZKO JARDUERA	TRANSMIZIOA	Familia transmizioa	Familia transmizioa	
		Lehen haurtzaroa	Lehen haurtzaroaren harrera kolektiboa 2011-14	Lehen haurtzaroaren harrera kolektiboa 2014a alton
ERABILERA	Irakaskuntza	Irakaskuntza orokorra 2011-14	Irakaskuntza teknologikoa eta profesionala 2014a alton	Goi-mailako irakaskuntza 2014tik landa
	Helduen euskalduntzea (formakuntza profesionaletik kanpo)	Helduen euskalduntzea 2014a alton		
ONARRIZKO JARDUERA	Bizitza soziala	Administrazioak, zerbitzu publikoak eta parapublikoak 2011-14	Garraioak (azpiegiturak eta zerbitzuak) 2014a alton	Gizarte eta osagarri alorak 2014tik landa
	Aisiaaldiak	Egunaoko aisiaaldiak zentroak 2014a alton	Arte eta kultura hezkuntza 2014a alton	Saitegiak, jende zerbitzuak 2014tik landa
ERABILERA	Hedabideak	Telebista 2014a alton	Irratia 2014a alton	Kirol hezkuntza 2014tik landa
	Argitalpena	Liburuaren ekonomia 2011-14	Irakakurketa publikoa 2014a alton	Zerbitzu kontsumoa 2014tik landa
ONARRIZKO JARDUERA				Idatzizko prentsa 2014tik landa
				Internet bidezko prentsa 2014tik landa

3.4. EEPren lanetan subsidiariotasun printzipioa nola obra

Subsidiariotasun printzipioaren arabera, ekintza publiko baten betetzeko ardura, modu egokienean egin dezakeen eragile publikoari ematen zaio. EEPri aplikatuz, horrek erran nahi luke, EEP arikò dela emanak zaizkion eginbeharren mugetan. **Osoki EEPren ardurapean ez diren alorretan, EEP sartuko da, eskudun den eragileak hizkuntza politikaren beharrei arras erantzuten ahal ez badie,** hots EEPk modu egokiagoan bete dezakeelarik delako eginkizun hura.

3.4.1. EEPk bere laguntza ekarri baino lehen, dirubide arrunten baliatzeari lehentasuna emanen dio

Euskararen erabileraren eremuetan hizkuntza politikaren azkartzearekin batean, finantzamendu beharrak emendatu dira. EEPren buxetak ez dauka helburutzat euskararen aldeko hizkuntza politikaren finantzamendu guzien estaltzea. EEPren xedea euskararen **problematika** emeki-emeki eragile publikoek obratu **politika sektorialetan « exortatzea »** da.

Gisa horretan, pixkanaka, lankidetzazko politika integratu bat eraikiko da, euskararen **problematika** **politika sektorialetan** sartuz epe luzerako. Horrez gain, dirubide arruntak hobeki baliatzen ahalko dira, EEPren beste xedea baita hizkuntza politikako ekintza berriak obrarazi alzin, EEPtik Kanpo

finantzamendu arruntak behar bezala eskatuak eta bilduak izan direla segurtatzea. Jokabide honi sistematikoki lehentasuna emanen zaio.

Halere, ezin ahantz daiteke, **euskararen aldeko politika ez dela, gehienetan, eragileen lehentasunetan sartzen**, ez eta geroan ere sartuko. Horren **ondorioz, EEP batzuetan finantzamendu horietan parte hartzera behartua izanen da**, edo osoki edo partez :

- kostu osoa beregain hartuko du, euskarari lehentasuna emana ez zaiolarik (adibidez, haurtzaindegiko langile batek dirubide arruntak baliatzen baditu lehentasunez bere ofizioari loturiko formakuntza batentzat eta ez hizkuntza formakuntzarentzat) ;
- gainkostua beregain hartuko du, ekintza batean euskararen sartzeak kostu gehigarri bat ekartzen baldin badu (adibidez : seinaletika elebiduna egiteari dagokion gainkostua).

3.4.2. Politika arruntetan hizkuntza politikaren integratzea

Euskararen problematika politika sektorialetan txertatu nahi den bezala, EEPk eragile publikoekin lan eginen du hizkuntza politika integra dezaten beren eskumenetako politika arruntetan.

Hala, adibidez, euskararen presentzia garatu nahi bada liburutegi sarean, oinarritzat hartuko da Departamenduaren eta herrien eskumenetan den irakurketa publikoaren politika.

Ariketa bera eramanen da hizkuntza mailako formakuntza profesionalaren arloan. Oroen buru, desmartxa profesional batean ikasten delarik euskara, dispositibo arruntei dei egin beharko zaie, hots, CNFPTari agente publikoentzat, OPCArri erakunde pribatuei doakienez, eta Eskualdeari gazte eta langabetuentzat.

Hizkuntzaren gaia politika arruntetan « egiazki » integratzen artean, eta lan horren osagarri gisa, Euskararen Erakunde Publikoak « **funtzio bultzatziale** » bat ukaten du **hizkuntza politikako ekintzak abiatzeko, pusatzeko eta laguntzeko**, beti manera pragmatikoan eta bere buxetaren mugetan (adibidez, haurtzaindegietako langileen euskārazko formakuntza).

3.5. EEP eta Aholku Batzordearen arteko etengabeko kontzertazioa egonkortzea hizkuntza politikaren lantzeko eta jarraitzeko

EEP plantan jarri delarik, botere publikoek Erakundearen estatutuetan finkatu zuten Aholku Batzorde baten sortea, hizkuntza eragileen esperientzieta eta jakitateetan bermatzeko eta hizkuntza politika beti jokabide parte harrazle batekin obratzeko. Kontzertazio funtzioko hori behar bezala betea izan dadin eta koadro egoki bat dezan, Aholku Batzordearen antolaketa finkatua eta moldatua izan da, EEPren norabide eta aitzinamenduak jarraituz. Antolaketa eta egokitze lan hori segitu beharko da ondoko urteetan.

EEP Aholku Batzordearekilako kontzertazioa indartu nahi du, eta bereziki honen izaera iraukorra eta arras pragmatikoa. Helburu hori betetzeko, eta kontzertazioak hizkuntza politikaren obratzetik urratsak segi ditzan, EEPk lan-talde tematikoak sortu nahi ditu esku-hartze eremuak ireki arau. Lan-talde horiek kide boluntarioez osatuak izanen dira, batzuk Aholku Batzordeko kide izanik eta parte hartzeko hautua eginik, eta beste batzuk, EEPk beren gaitasun bereziengatik deituak izanik. Kideek ekar lezaketen laguntza gisa horretakoia izanen da :

- azpi-eremuaren adituenganik beren ezagutza eta jakitatea, bereziki azpi-eremuaren diagnostikoa egiteko momentuan ;
- proposamenak esku-hartze estrategiaren definitze lanean ;
- lanaren jarraipena, ekintza-fibetan oinarrituz.

Proposatua da beraz, pixkanaka, 2011 hastapenetik goiti, lan-talde horien sortzea, EEPk lan-eremu berriak ireki arau (3.3. pundiua zehatzua da aurreikusia den egutegia).

Bestalde, motibazioari buruzko lan-talde bat irekiko da 2011an. Izan ere, badakigu, Hizkuntza Politika Proiektuak agerrazazirik, motibazioa beste erronka guzien betetzeko halabeharrezko baldintza bat dela, jakinez bai ikaskuntza fasean, bai erabileran eta bai hizkuntza transmisiōan ere, oinarritzko dela. Motibapen funtzia, orain artino puntualki garatua izan dena, egituratu behar da. Horrek erran nahi du sentsibilizazio estrategia orokor bat definitu behar dela eta obratu, beti ere Ikaskuntza/Erabilera bikotea Ikaskuntza/Erabilera/Motibapena hirukotean jarriz, hau baita soziolinguisten arabera, hizkuntza baten berpizteko bide bakarra. Problematika horri buruzko taldeak lagunduko du egituratze lan horretan.

3.6. EEPko injineritza baliabideen azkartzeari lehentasuna ematea, barneko antolaketa Jokabide Esparru berriaren arabera egokitua izan dadin

► Hizkuntza politikaren gidatzeko ingeniaritzaren azkartzeari lehentasuna eman

EEP beste sei urterako berritzatzeko momentuan, berriz onetsiak dira Hizkuntza Politika Proiektuan finkatu norabide estrategikoak, bai eta EEPren esku-hartze eremuak emendatuak ere, bereziki euskararen erabileraren eremuetan. « *EEPk bere buruari finkatu dizkion norabideak atxiki behar ditu eta gogor egin behar du lan hedadura handiarengatik dagoen dispertsio arriskuari. Horretarako, « bultzatzale funtzia » bat erantzunez, ahal bezain bat lehenetsi behar du politika arruntetan hizkuntza politikaren integrazioa. Hala, haren kide sortzale eta partaideak esku-hartze azkarrago baten hartzera bultzatu beharko ditu. Gisa horretan, EEPko taldeak osatzen duen ingeniaritzza baliabideen emendatzea ez da funtzionamendu gasto soil baten gisara ikusi behar, gauzatu beharreko lehentasun bat bezala baizik, izan daitekeen gainerako eskaera ororen gainetik » .*

Hizkuntza politikaren definitzeko eta obratzeko eginkizuna eman baitzaio EEPri, honako hauek dira haren egitekoak :

- ekintza azpi-eremu bakoitzerako politika eta esku-hartze koadroen definitza, azpi-eremuaren diagnostiko zehatz batetan oinarrituz ;
- obratu politikaren sustatzea, eragile ezberdinaren esku-hartzea bultzatzu eta horretan lagunduz;
- eraman politikaren jarraipena eta ebaluaketaren segurtatzea.

Funtzio hauen betetzeko baitezpadakoak dira jakitate bereziak eta giza-baliabideak.

Giza-baliabideen emendaketaren lehenesteak EEPren jatorrizko funtzia erantzuten dio : kudeatu, sustatu, esku-hartzeak bultzatu, eragile publikoen parte hartzea eragin, beren dispositibo eta finantzamenduekin batean.

2011-2014 urteetarako adostu lan hipotesia : 12 lanpostu finkoko lan-taldea.


► Barneko antolaketa bat Jokabide Esparru berriaren arabera egokitua

Esku-hartze metodo berri honek (azpi-eremuak beren osotasunean kontutan hartzen dituenak) eta, esku-hartzea erabileraren azpi-eremuetara zabaltzeak, EEPren ekintza handituko du, bai bolumenaren aldetik, bai dibertsifikazioaren aldetik.

Ekintza ahal bezain eraginkorra eta errealtitateari lotua izateko, azpi-eremu bakoitzarentzat esku-hartze unitate autonomo bat antolatzea ezinbestekoa da.

Esku-hartze unitate horiek hiru elementuz osatuak lirateke :

- **esku-hartze estrategia** bat, gidaritza eskemetan definitua izanen dena ;
- **misio kargudun bat, ingeniaritzaz arduratzen dena** ;
- **gaiaren araberako lan talde bat**, gaiari dagokion azpi-eremuko eragileez osatua, proposamenen egiteko indarra izanen duena ;



Azpi-eremua bere osotasunean misio kargudun bakar baten ardurapean ezarria izanen da :

- honela, azpi-eremua bere osotasunean lantzen ahalko du,
- azpi-eremuan gaitasuna hartzen ahalko du,
- azpi-eremu horretako eragileak ezagutuko ditu (pribatu eta publikoak).

➔ Estrategia egokiena definitzeko eta gidatzeko ahalmena ukantzen dezan.

➔ **Hizkuntza politikaren obratze orokorrak beharrezkoak dituen azpiegitura-funtzioen egituratzea**

EEPk hautua egin du, beharrak agertu arau, hizkuntzaren transmisioa eta erabileraren oinarrizko jarduera eremuetan eramanak diren politiken obratze egokiaren laguntza gisa heldu eta beharrezkoak diren azpiegitura-funtzioak aldi berean egituratzeko.

Jokabide Esparruak transmisio eta erabileraren mailan proposatzen duenarekin, egituratze bidean diren laguntza-funtzioen indartzea dakar, lan-taldearen barnean espezializazio eta jakitate berezien jabetzea eskatzen duena.

• **Euskararen presentzia eta erabileraren garatzeko estrategiaren obratzeko laguntza-funtzioa**

Bizitza sozialean euskararen presentzia eta erabileraren garapenaren politika egituratu baten indartzeak, lan-taldean funtzi honek azkartzea eskatzen du, gisa honetan, ekimen publikoa gaitasunetan eta espezializazioan oinarritu ahal izateko, eragileak beren euskarazko erabilera emendatzen laguntzeko : diagnostikoen egitea, euskararen presentzia eta erabileraren garapeñ planen sortzea, eragileen jarraipenerako EEPren hitzarmenen definizioa eta azkenik, finkatu norabideen obratzerakoan eragileen jarraitzea eta laguntzeko.

• **Hizkuntza arloko etengabeko prestaketa lagunza-funtzioa**

Hizkuntza Politika Proiektu osoarentzat funtzio estrategikoa da. Publiko desberdinaren artean hizkuntza mailako formazio beharren emendatzearekin, funtzio honen berehalako indartzea baitezpadakoa da, hizkuntza gaitasun egiaztapen dispositiboaren zabaltze progresiboa bermatu beharko duelarik bestalde.

• **Ekoizpen eta baieztapen linguistikoaren lagunza-funtzioa**

Hizkuntza politikaren obratze progresiboaren eta euskararen erabilera eremu berrietara zabaltzearen ondorioa da ere, hizkuntza tresna eta baliabideen beharra emendatz doala, gaur egun gaizki estaliak direnak : baliabide linguistikoak eskas dira (hiztegiak, lexiko berezituak, terminologia edo toponimia datu baseak...) eta hizkuntza baieztapen beharrak biderkatuz doaz (adibidez, euskara teknikarien bitartez euskara Herriko Ebeko bizitzan txertatuz doan heinean, seinaletika elebiduntzen ari den heinean, hedabideetan informazioaren trataera euskaraz den heinean edo euskarazko ekimen edo jarduera berriak gauzatzen diren heinean, hara nola bide prebentzia...).

Hona zergatik EEPk martxan ezarri duen hiru urtez iraunen duen frantsesa-euskara hiztegi proiektua, internet bidez galdezka daitekeena, oinarrizko azpiegitura dena euskarazko ekoizpenarentzat.

Hona ere zergatik egun urrunago joan behar den, ekoizpen eta baieztapen linguistikoen beharrei erantzuteko gai izanen den lagunza-funtzio bat egituratuz. Honen betekizuna, jadanik existitzen diren hizkuntza baliabideen erabilera eta eskas direnen sortzea izanen da, hiztun guzientzat zeinahi egoeratan, hizkuntza "operatiboa" bilakatzeko gisan. Paraleloki, hizkuntzaren kalitatearen bermatzeko, lagunza-funtzioaren zeregina izanen da ere itzulpengintza, toponimia eta terminologia problematikei bereziak zaizkien tresna eta trataera prozeduren mobilizatza. Horretarako, gai horretan adituak diren partaideetan oinarri hartuko du (Euskaltzaindia, IKER-UMR5478 ikerkuntza erakundea - CNRS - Bordele 3 - UPPA), hauekilako partaidetzen egituraketa jarraituko delarik.

• **Behatoki, jarraipen eta informazio funtzioaren egituratzea**

Erakunde Publikoaren sortzetik beretik, kide sortzaileek aitzin-ikusi zuten erakundeari zegozkion hainbat jarduera iraunkorren artean, behatoki funtzioa eta jarraitu beharreko adierazle kuantitatiboak, politikaren obratza eta hizkuntzaren erabileraren neurteko gisan : Hizkuntza Politika Proiektuaren onartzearekin 2006an, EEPk jarraitu beharreko hainbat adierazle soziolinguistiko definitu zituen :

- gaitasun linguistikoaren adierazleak ;
- familia transmisioa, lehen haurtzaroa, irakaskuntza, helduen euskalduntzea... alorretan, hizkuntzaren transmisio eta ikaskuntza adierazleak ;
- euskararen erabilera eta bizitza sozialean duen tokiaren adierazleak ;
- euskararekiko jarreren adierazleak ;
- ...

Bere sortzetik, EEPk behatoki eta jarraipen funtzio batzuk garatu ditu, gaur egun egituratuenak dira segur aski, euskarazko irakaskuntzaren datu base baten sorrera eta urteroko eguneratzea, Eusko Jaurlaritzako zerbitzuekin Euskal Herriko 4. Inkesta Soziolinguistikoaren eramatea eta landuak diren eremuetan eskaintzaren jarraipena, hara nola lehen haurtaroko harrera kolektiboko egituretan. Jarduera hauek molde pragmatikoan eramanak izan dira, hainbat misio kargudunen aldetik, hein bateko molde egituratuan.

Lehen esperientzia hauen ondoren, euskararen web atariaren sorrera eta 2009an burutu auto-ebaluaketa izan dira behatoki, jarraipen, ebaluaketa eta informazio-funtzioaren egituratzen hasteko

parada. Egituraketa honen jarraipena baitezpadakoa da eraman nahi den politikarentzat, EEPn bilduak diren partaide publikoek azpiegitura zehatz eta erreaktibo bat ukantzen dezaten, obratua den politikaren definizioaren eta ebaluaketaren argitzeko gai izanen dena.

- **Sentiberatze estrategiaren obratzerako lagunza-funtzioa**

Eragileen motibapenak Hizkuntza Politika Proiektuaren eremu bakoitzeko lorpenean baldintzatzen du, ikaskuntzaren, erabileraren eta hizkuntzaren transmisioko oinarrian baita aldi berean. Ondorioz -are gehiago eragile guzien hautu librearen printzipioan oinarritua den politika publiko batetan- motibapena eragin, sustatu eta mantentzeko ekimen bultzatzaile baten obratza funtsezkoa da. Funtzioa hau doi bat garatua izan da molde pragmatikoan, usuenean puntualki eta misio kargudunen artean partekatua. Beharrezko da jarraipenaren ematea eta egituratzen joatea. Beharrezkoa izanen zaio ere, sentsibilizatze estrategia orokor baten definizio eta obratze batekin osatua izatea, Ikaspen/Erabilera bikotea, Ikaspen/Erabilera/Motibapena hirukotea bilaka dadin, biziberritze linguistikoaren baldintza soziolinguistikoa. 2011 hasieran, lan-talde bat sortuko da gai horretan gogoetak egiteko (ikus 3.5. puntua).

- **Beste lagunza-funtzioen egituraketaren jarraipena**

- **Eragileen profesionalizatzerako lagunza-funtzioa**

2006tik, EEPk aitzin ikusi zuen hizkuntza eragileen profesionalizatzen lagunzeko beharra, gehienak elkarteak izanik, lagunza eskainiz gai tekniko, juridiko, edo/eta finantza arlokoak tratatzeko, beren funtzionamendu egokiarentzat baitezpadakoak baitira.

Funtzio hau guti garatu da urteetan zehar eta misio kargudunen artean partekatua izan da. Jarraipena behar du eta egituraketa hobea ere.

Eragileen profesionalizatzerako lagunza, euskararen transmisioa eta erabileraren eremuetan eraman politiken euskarri zuzena da, hauen obratzeko beharrezko baita eragileak profesionalak izan daitezen, jardueren iraunkortasunaren bermatzeko gisan.

- **Mugaz gaindiko lankidetza dispositiboa hizkuntza politika mailan**

2007an EEP eta Eusko Jaurlaritzaren artean izenpetu hitzarmen-markoari esker, lankidetzarako fondo amankomunaren plantatzea posible izan da, bi partaideen ekarpenekin, Iparraldeko hizkuntza eremuko eragile guzien lagunzeko urtero berritzen den lagunza deialdi dispositibo bat sortuz, geroztik bi partaideek urtero antolatu lagunza deialdi baten bitartez obratzen dutena. Honen ondorioz ere, bi partaideek elkarrekin eramatea adosten duten jarduera programa bat, urte guziez eranskin batetan finkatzen dute, hara nola azken inkesta soziolinguistikoaren elkarrekin eramatea.

Abiatu ekimenen jarraipenean, partaidetzazko politika honen egituraketa segituko da :

- hizkuntza eragileen lagunzeko urteroko dispositiboen jarraipenarekin eta egokien progresiboarekin, Hizkuntza Politika Proiektuko eremu desberdinietan eraman ekintzen egituraketaren arabera eta esku-hartze estrategien zehaztasunaren arabera ;
- elkarlan tekniko berriak abiatuz, partaide bakoitzak daraman ekinbidea argitzera eta aberastera etorriko direnak.

• **Hizkuntza politikaren tokiko obratzeen dispositiboa**

2006tik EEP tokiko aginteekin partaidetzak eraikitzen ari da, lurralte desberdinetara hizkuntza politikaren eramateko. EEPrekin partaidetza bat lotuz, tokiko aginteak engaiatzan dira hurbileko hizkuntza politika baten eramatera, Hizkuntza Politika Proiektuak dituen eremu osotasuna hartuz, tokiko errealitateei egokituz, tokiko eragileak mobilizatzu. Partaidetza bakoitza, tokiko hautetsiez osatua den Gidaritz Batzorde batetan oinarritua da. Honen gain da, EEPrekin elkarraditzu, bere "neurriko" hizkuntza politikaren marraztea. Gisa honetan definitua den politika hau, euskara teknikariak gauzatuko du, horretarako beharrezkoak diren baliabide tekniko eta ekonomikoekin.

Gaur egun, zazpi kolektibitate edo elkargo engaiatuak dira politika honetan, lurraltearen zati handi bat estaliz.

Dispositiboaren eraikunta jarraituko da heldu den epealdian lurraltearen osotasunaren estaltzea helburutzat hartuz. Sarearen egituratze eta animazio lan batek lagunduko du.

• **Hizkuntza gaitasun egiaztatze dispositiboa**

2006an berean, ikusirk euskararen ikaskuntzaren garapenaren ondorioz gero eta beharrezkoagoa zela hiztun desberdin (ikasle, profesional...) hizkuntzaren menderatze heinaren neurtea alde batetik, eta bestalde, instituzioen eta eragile euskaldun edo euskalduntze bidean ziren aldetik euskararen garapenaren alde egin indarra handituz zihotza, hauek ere gaitasuna neutrut nahi zutela, Hizkuntza Politika Proiektuak Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren araberako gaitasunen egiaztatze dispositibo baten sortza aurreikusia zuen, eta mugaz bestaldeko agiriekilako hauen baliokidetza.

Gisa honetan, EEP eta Unibertsitateen artean adostu partaidetza batetan, euskara gaitasunaren egiaztatze dispositibo bat martxan ezarri da, 2009tik lekuoa hartu ahal izan diona lehenagoko EGA (Euskara Gaitasun Agiria) azterketaren antolatze lanetan ari zen Euskaltzaindiari.

Lehen egiaztatze agiri honen obratza eta egonkortzeaz gain, ekimena jarraituko da Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako agirien baliokidetze dispositibo batekin eta beste egiaztatze mailen sortze progresiboarekin, beti Europako Markoa Bateratuaren arabera.

Behin dispositiboa osaturik, gaur egun dauden euskara ikasteko sistema desberdinako pertsona guziei (jatorrizko formazioa, helduen formazioa, etengabeko prestaketa...) zertifikazio tresna ofizial bat eskainiko zaie, formazio prozesuan erreferentziatzko izanen dena eta lan munduan euskara ikastearen balioestea ekarriko duena.

• **Aholku Batzordea**

Aholku Batzordearen funtzioa azkartu nahian, EEPk Aholku Batzordeko kideez osaturiko lan-talde tematikoak sortuko ditu, ekintza azpi-eremu bakoitzarentzat talde bat bilduz (ikus 3.5. pundra).

Bestalde, EEPk segituko du Aholku Batzordea parte harrarazten bere lanetan. Horretarako, bi osoko bilkura gutienez antolatuko dira urte guziz :

- bat, urte hondarrean : jardueren programa eta ondoko urteko aurrekontu-egoera eta norabideak aurkeztuz ;
- beste bat ekaina-uztailan : zehazki azaltzeko zein izan diren egin ekintzak eta erregularki bilan baten aurkeztek, 2011-2016 urteetako Jokabide Esparruaren arabera, hizkuntza politikaren obratza zertan da evaluatzu.

Ondorioak

EEP Interes Publikoko Egituraren (GIP) berriztatzearekin batean, Euskaren Erakunde Publikoak 2011-2016 urteetako ibilbide-orria marrazten du eta hona zein diren honen ezaugarri nagusiak :

- norabide estrategiko bat : *EEPren esku-hartzearen indartzea euskararen erabileraren eremuetan – bizitza soziala, hedabideak, aisialdiak, argitalpena – une berean transmisió eremuetako eskua-hartzea egonkortuz – lehen haurtzaroa, irakaskuntza, helduen euskalduntzea – ;*
- Hizkuntza politikaren obratzeko metodo bat : *ekintza azpi-eremu koherenteen araberako esku-hartza lehenetsi, azpi-eremuaren errerealitateak kontutan hartuz definitua izanen den estrategia berezi batetan bermatuz ;*
- transmizio eta erabileraaren eremuetan **lehentasunez landuko diren azpi-eremuen hautatzea printzipio bikoitz baten arabera** : estrategia printzipioa eta errerealitate printzipioa ;
- **EEPren lanetan, subsidiarotasun printzipioaren obratza sistema koki, hau da :**
 - EEPk bere lagunza ekarri baino lehen, dirubide arrunten baliatzeari lehentasuna eman ;
 - politika arruntetan hizkuntza politikaren integratzea.
- **EEP eta Aholku Batzordearen artean etengabeko kontzertazio baten plantan jartzea**, obratu hizkuntza politikaren lantzeko eta jarraitzeko ;
- **EEPko ingeniaritza baliabideen azkartzeari lehentasuna ematea**, barneko antolaketa, Jokabide Esparru berriaren arabera egokitua izan dadin

Hautu hauek **bi helbururekin** egin dira :

- hizkuntza Politika Proiektuak finkatu helburu nagusia erdiestea : **hiztun osoen sortzea** ;
- eraginkortasuna eta betierekotasuna bilatza, **hizkuntza politika integratu bat progresiboki eraikiz**, eremu eta sail desberdinatan eramatzen diren politiken muinean kokatuz eta hauekin koherenzian.

2011-2016 urteetako Jokabide Esparru hau izanen da EEPk, orain hasten den epealdirako, eskutan ukamen duen ibilbide-orria. Haren obratzeko erritmoa EEPko kideen diruzko engaiamenduen arabera egokituko da.

2. ERANSKINA

ANNEXE 2



CONVENTION de PARTENARIAT

Politique linguistique en faveur de la langue Basque

PARTAIDETZA HITZARMENA

Euskararen aldeko hizkuntza politika



Entre les soussignés :

